



BARREN

TOKIKOM



Istorio beltzak argitarara



ELGOIBAR STOCK KALE AZOKA



Martxoak 4 eta 5
10:00-13:00 eta 17:00-20:00



Postuak establezimendu atarietan egongo dira



Parte hartzeko eta informazio gehiago eskuratzeko deitu 943 747 301 zenbakira

MAIALEN SANCHEZ

Idazlea

Hitz egiten ez ahazteko abesten dut

bilena eskaintzen duen laguntza psikologikoa desagertu egin da, eta horrek guztiak konpondu ezin den kaltea eragin du.

Duela egun batzuk emakume baten gelan sartu nintzen. Emakume horrek, bere egoeratik, dena kontrolpean edukitzeko protokoloak dituen zentro batean bizi behar du. Irratia ozen entzuten zen, berak ondo zekien abestia, eta horrela erakutsi zidan. Mugitzen uzten ez zidaten plastikoengatik izan ez balitz, harekin kantuan eta dantzan hasiko nintzatekeen. Lagunartea behar zuen, positibo baten kontaktu estua besterik ez zen, eta berak bere bizitzan zerbait positibo ekarriko

zion norbaiten kontaktu estua behar zuen, bakardadean egun gehiegi baitziren. Irribarre egin nion nire lana egiten nuen bitartean, eta horrekin soilik, bere itxialdiko zortzigarren eguna eramangarriagoa izango zela zirudien. Begiratu egin zidan, eta bere gelako soinu-zaratak azaldu nahian, esan zidan, *hitz egiten ez ahazteko, abesten dut*. Begiak busti zitzaizkidan eta bihotzak oihu egin nahi zuen. Eskutik helduta, *dena laster amaituko da* esan nion, nire hitzak egiazkoak izan zitezten desiratuz, eta ez beste gezur bat gehiago. Barkamena eskatu nion, ez dakit zergatik, ziurrenik errudun sentitzen jarraitzen dudalako, protokolo bateko kidea izateagatik.

Egunak eta egunak eman ditugu askatasunik gabe, besarkadarik gabe eta gehien maite ditugunekin kontakturik gabe. Zalantzan jartzen hasi naiz zer den gure osasunerako arriskutsuena, birusa edo haren aurka borrokatzeko modua. Zaindu gaitezen, zentzu guztietan.

*“Mugitzen uzten ez zidaten
plastikoengatik
izan ez balitz, harekin
kantuan eta dantzan
hasiko nintzatekeen”*



Azken bi urte hauetan gure hiztegiari pandemia, berrogeialdia, protokoloa edo isolamendua bezalako hitzak gehitu dizkiogu, denak batera edo bakoitza bere aldetik, beldurra ematen duten hitzak. Gaur azken honi buruz hitz egin nahi dizuet, nire ustez, bere esanahia praktikan jartzea edozein birus baino arriskutsuagoa baita.

Pentsatu al dute gure buru osasuneari? Egoitzetan, ospitaleetan edo bizikidetzazentrotan, birusaren aurkako jarduera-protokoloek ez dute kontuan hartzen gaixoaren buru-osasunaren zaintza. Besteak beste, bisitak mugatu egin dira, solairuen edo unitateen araberako konfinamendua ezarri da, ingurune hur-



BARREN

ARGITARATZAILEA:

ELGOIBARKO IZARRA
Euskararen Topagunea

Aita Agirre Kulturgunea, 3, 3. ezk. - 20870 ELGOIBAR

943 744 112

Publizitatea: 943 743 704

barren.publi@elgoibarkoizarra.eus

barren@elgoibarkoizarra.eus

www.barren.eus

BARRENEK bere gain hartzen du espazio arazoengatik iragarkiak lekuz aldatzeko eskubidea. BARRENEK ez du bere gain hartzen Iritzia, Hitz eta klik eta eskutitzak ataletan adierazitako enantzikizunik.

KOORDINATZAILEA Ainhoa Andonegi **KAZETARIAK** Ainhoa Andonegi, Asier Orbea, Ainara Argoitia, Irati Agirreazaldegia **HIZKUNTZA ARDURADUNA** Ainara Argoitia **PUBLIZITATEA** Leire Rubio **MAKETATZAILEA/DISEINATZAILEA** Zalao Amaiz **ATARI DIGITALEKO ARLO TEKNIKOAREN ARDURADUNA** Aitor Lauzirika **ADMINISTRARIA** Amaia Arrizabalaga **KOLABORATZAILEAK** Manu Sanchez, Iosu Juaristi, Iñigo Lamelas, Edurne Izagirre, Paula Heras, Ane Astiazaran, Irati Agirreazaldegia, Juan Luis Mugertza, Izaro Etxegibel, Iñaki Goitia, Jose Ramon Cabrera, Alex Segade, Ane Kortaberria, Sara Iriondo, Asier Guisasola **INPRIMATEGIA** Gertu Koop.E. **TIRADA** 4.885 ale **LEGE GORDAILUA** SS-1.038/92 **ISSN** 1138-1855

BABESLEA:

ELGOIBAR
URDIA
AJUNTAMIENTU

LAGUNTZAILEAK:

MENDAKRO
1981

Gipuzkoako Foru Aldundia



BARRENEK ez du bere gain hartzen IRITZIA eta ESKUTITZAK ataletan adierazitako en erantzukizunik. Eskutitzak ondo identifikatuta egon behar dute. Ez ahaztu izen-abizenak, NANa eta telefonoa jartzea. Bidali helbide honetara: barren@elgoibarkoizarra.eus

► 'MADRILEÑA'

Amaren ohe ondoan gaude. Joaten ari da. Orain dela egun batzuk bere begi urdinek esan ziguten distira triste batez, bazekitela amaiera heltzear zegoela. Hitz egiten diogu: aspaldiko kontuak, txikitako bihurrikeriak, huskeriak, familiako gauzak... eta, noizean behin, Chotis eta Zarzuelak jartzen dizkiogu (batzuetan erritmoa eramaten du esku batekin). Tarteka, etxeko txoko guztiak arakatu ondoren, konturatzen naiz koardroek, besaulkiek, janariak, arropak, bitxiak... bere esentzia galdu dutela, bertan egoteko eskubidea galdu izan balute bezala. Gure ondoan ama itzaltzen den heinean, gauza horiek arrotz bihurtzen dira.

Ez die paga gehiago emango bere bilobeei (billete handiak beti, eh?), ezingo die esan *peroquépelostenéis*, ez dizkigu berriro jaurtiko bi, hiru edo lau intentzios kargatutako misil dialektikoak (askotan anai arrebon artean esaten dugu ama *armadedestrucciónmasiva* dela)... ez digu berriro aurpegiatuko deitu ez izana, ez dugu *Callejeros Viajeros* elkarrekin ikusiko, ez du berriro pa-

parra zikinduko gilda baten olio tanta batez, ez digu galdetuko hamar aldiz ea zerbaite jan nahi dugun, ez die berriro alpisterik aterako egunero balkoira etortzen diren tortolei...

Harroa, eskuzabala, *kaskarrabias*, sukaldari aparta, koketa, esanekoa (edo ez), kultoa, kuriosa, kritikona, argia, ke-xatia... ama.

Orain, deitu, bisitatu, laztandu edo musukatu ez dugun aldi bakoitzeko ziztada txiki bat sentitzen dugu errailetan, egin ez izanak bueltarik ez duela gogorazteko.

Agur, ama. Agur, *madrileña*.

A.I.

dakien; huskeria behar dute transformatzeko, egunerokoa alboratzeko, osagarri nagusia jarrera delako. Mozorrotzean, bestela egingo ez genukeena egiten omen dugu. Esan izan da, ordea, mo-zorrotzean ezagutzen dela pertsona nolakoa den, bere portaera naturalagoa, benetakoagoa bilakatzen baita. Euskal Herrian herri gehienetan, modu batean edo bestean, ospatzen hasi dira inauteriak. Elgoibarren, azken unean jai giroko gauzatxo batzuk antolatu dituzte. Ez da asko, baina, irudimen apur batekin, mo-zorrotzera animatzen zaituztet. Egun batez bada ere, atera dezagun barruan dugun bizi poza kalera!

Z.A.

► MOZORROTZERA ANIMATUKO GARA?

Badatoz inauteriak! Pandemian sartu aurretik ospatu genituen azken inauteri jaiak. Urte gogorak pasa ditugu, bai, ez dugu ahaztu behar, baina uste dut normaltasunerako bidea egiten hasteko unea iritsi dela. Inauteriak askorentzat irudimenaren eta askatasunaren jaiak dira ezin da ukatu. Beti harritu nau zenbaitek hain gutxirekin zenbat egiten

Zer
iruditzen
zaizu
BARREN?




BARRENI buruzko inkesta

Inkesta honen bidez, BARREN KOMUNIKABIDEARI buruz duzun iritzia jakin nahi dugu. Minutu gutxi batzuk baino ez dituzu beharko. Mila esker zure denboragatik!

Inkesta anonimoa da, baina zure profila hobeto ezagutzeko datu gutxi batzuk eskatuko dizkizugu. Egon lasai: inkesta honi buruzko zerbaite publikatzen badugu, erantzun multzoak izango dira, ez banan-banakoak.

Sartu barren.eus-en eta egin klik bannerrean



Isunak ipiniko dizkie Mankomunitateak zabor poltsak edukiontzietatik kanpo lagatzen dituzten herritarrei

Debabarreneko Mankomunitatea hainbat neurri hartzen hasi da zabor bilketaren harira. Izan ere, azken hilabeteetan zenbait herritarrek azaldu dute kezka zabor edukiontzien inguruetan pilatzen diren hondakin poltsengatik. Mankomunitatek azaldu dute hondakinak herrietan egunero jasotzen direla eta, "hortaz, errefusaren ontzian beti dago lekua poltsak edukiontzien barruan uzteko". Emandako datuen arabera, egunero eskualdean mila kilo hondakin inguru jasotzen dira edukiontzi kanpoan utzitako poltsetan eta arazo hori konpondu nahi dutela gaineratu dute arduradunek.

Horretarako, Mankomunitatearen hondakin bilketaren ordenantza oinarrituta, eta udaltzainek egindako atestatuari eta herritarren kexei erantzunez, iazko urritik hona lau zigor espediente ireki dituzte. Zigorrek bi establezimenduk (horietako bat bi aldiz) eta pertsona partikular batek jaso dituzte hondakin poltsak edukiontzi kanpoan laga zituztelako. Mankomunitateak, baina, hartu dituen lehen neurriak izanik, zigor espedienteak "abisu moduan"



ipini ditu. Hala ere, hemendik aurrera 200 euroko isuna jaso ahal izango dute modu desegokian jokatzen duten herritarrek. Horretarako, batetik, Mankomunitateak ikuskapenak egingo ditu edukiontzi puntuetan eta, bestetik, udaltzainek egingo dituzte atestatuak. Halako kasuetan, aipatutako lauretan bezala, Mankomunitateak emango du erantzuna.

Morkaikok lantaldea sortu nahi du Karakateko haize erroten egitasmoari erantzuteko

Morkaiko mendi taldeak kezka agertu du Capital Energy enpresak Karakate eta Atxolin artean bi haize errota handi ipintzeko duen asmoaren harira. Mendi taldeak erantzun bateratu bat prestatu behar duela uste du eta horretarako lantalde bat behar dela. Taldearen asmoa da



proiektuaren nondik norakoak argitu eta herriko eta inguruko beste elkarteekin erantzun bat prestatzea da asmoa. Lantaldera batu nahi dutenek morkaiko@morkaiko.eus helbidera idatzi edo eguaztenetan, 19:00etatik 20:00etara bitartean Morkaikoko lokaletik pasa daitezke. Elgoibarko mendizaleek duten arnasmune eta leku kuttunetako bat zeharo hondatuko lukeela adierazi dute Morkaikotik, eta gai oso garrantzitsua izanik Elgoibarko mendizaleak animatu nahi dituzte: "Denon artean astakeria hau geldi dezakegu", esan dute.

Udal ordezkariari dagokienez, Sorraluzeko Udalean ordezkariak duten EH Bildu, EAJ eta PSE-EE alderdiek bi dorre eolikoak jartzeko proiektuaren kontra agertu dira. Elgoibarko Udaleko arduradunek, berriz, esan dute Sorraluzeko Udalari dagokion gaia dela, errotak eraikitzeko lekua beren lur eremua delako.

Aldenik Aldeneko martxoko ekintzetarako izen-ematea martxoaren 2ra arte

Aldenik Alden egitasmoaren baitan bi jarduera antolatu ditu Atxutxiamaiak martxorako, Udalak babestuta. Batetik, martxoaren 5ean, irteera egingo dute Karrantzako haranera animaliak eta Jurasiar garaiko dinosaurioak ezagutzeko. 10:00etatik 17:00etara arteko egun pasa izango da eta 20 euro (bazkideek 18 euro) ordaindu beharko dituzte. Bestalde, martxoaren 19an eta 26an itzalekin jolas egiteko aukera izango dute umeek 10:00etatik 13:00etara Kultur Etxeko Sotoan. Itzal titere laborategiaren eskutik bi saio egingo dituzte; lehena Zurrunka antzerki taldeak eskainia eta Aldenik Aldeneko lan taldeak bigarrena, azken hori, umeen ideia eta ekarpenekin egingo dute. (18 euro; bazkideek 16 euro) ordaindu beharko dituzte joan nahi dutenek. Martxoaren 2ra arteko epea izango da izena emateko www.elgoibarkoizarra.eus webguneko formularioa betez.

Martxoan hasiko dituzte Bolatokiko parkean Ludoteka berria eraikitzeko lanak

E lgoibarko Udalak jakinarazi du martxoan hasiko dituztela Bolatokiko parkean Ludoteka berria eraikitzeko lanak. Obrek lau hilabete inguruko iraupena izatea aurreikusi du Udalak, eta, ondo bidean, 2022ko bigarren seihilekoan irekiko du Ludoteka. Construcciones Aplibur S.L. enpresak egingo ditu obrak eta inbertsioa 202.830,86 eurokoa (BEZik gabe) izango da.

Udaletik, lokalaren kokapenak, Ludoteka bereziki erakargarri egiten duela azpimarratu du, herriaren erdigunean dagoelako eta. gainera, parke baten ondoan.

Lokalak 173,79 m² izango ditu erabilgarri eraikita-koan eta egungo ludotekan eskaintzen dituzten zerbitzu hauek mantenduko dituzte: ataria, harrera, mahai-jokoen gela, hezitzaileen gela, erabilera anitzeko gela, tailerra, komunak eta biltegia. Ludoteka berriaren altzarrien eta edukien diseinua herriko haur eta nerabeekin batera definituko da.



300 haritz eta pago landatu zituzten Santa Kurutzen Mendaroko Zuhaitz Egunean



Zuhaitz Eguna egin zuten zapatuan Mendaron, Santa Kurutz inguruan Udalak dituen lur sailetan. 30 bat herritarrek hartu zuten parte Mendaroko Udalak Arno Guraso Elkartearen laguntzarekin antolatutako ekimenean. Ere-mura iritsitakoan, zuhaitzak landatzeak duen garrantziaren inguruko azalpen labur bat eman zuen Nahiara Mugertza biologoak, ekimenaren helburua familietan kontzientziazioa eta ingurumenarekiko ardura sustatzea delako. 300 haritz eta pago landatu dituzte guztira, baina Udalak landatu ditu ia denak Txitxirikan. Herritarrek eta umeek parte hartu zuten landaketan bost pago-lan-dare sartu zituzten. Babesak ere jarri zituzten landareen bueltan, orkatzek eta gainerako animaliek arbola kaltetu ez ditzaten.

Zubigazte aisialdi egitasmoa ipini dute abian Mendaron LH5 eta LH6ko gazteentzat

Mendaroko Gaztelekuak Zubigazte egitasmoa ipini du abian Lehen Hezkuntzako bosgarren eta seigarren mailako herriko ikasleen artean aisialdi hezitzailea lantzeko asmoz. Hilabete bakoitzeko bi larunbatetan aisialdi ekintzak egingo dituzte Gaztelekuak, 17:00etatik 18:00etara bitartean. Otsailaren 12an egin zuten Zubigazteko lehen saioa eta 19an bigarrena eta hurrengo jarduerak honako egunetan izango dira: martxoaren 12an eta 19an; apirilaren 2an eta 23an; maiatzaren 14an eta 21ean; eta ekainaren 11n eta 18an. Otsailean herri kirolak egin zituzten zapatu batean, eta bestean, *Cluedo rol play* eta mozorro lehiaketa. Martxorako, berriz, aurreikusi dute berdintasunerako hiztegia eta hizkuntza inklusiboa lantzea 12an eta munduko mahai jolasetan arituko dira 19an. Egitasmoan adin tarte horretako herriko edozein gaztek eman ahal izango du izena eta horretarako edo programa honi buruzko informazioa eskatzeko Mendaroko udal-terera edo ludotekara jo behar da.

2023 urtearen hasieran King-Kongeko zubiko obrak hastea aurreikusi du Udalak

Herriko erdigunearen eta Urazandiren arteko zubia konpontzea herritar askok eskatu du urteetan. Eskaera horri erantzun dioten lanak egin aurretik, zubia eraberritzeko eta modu irisgarriagoan jartzeko proiektua egin behar da eta lehiaketa deialdia egin zuen Elgoibarko Udalak. Injelan ingeniari enpresa aukeratu dute 66.000 euroko (BEZik gabe) aurrekontuko proiektua idazteko. Ondoren, obren zuzendaritzaren ardura ere enpresa berak izango du eta 68.400 euroko (BEZik gabe) aurrekontua izango du lan horrek.

Zubia eraberrituz herriko erdigunearen eta Urazandi auzoaren arteko irisgarritasuna hobetzea da Udalaren helburua. Izan ere, oinezkoen ibilbideak oztopo arkitektoniko esanguratsuek (N-634 errepidea eta Deba ibaia) zeharkatzen baititu gunehorretan. Horretarako hainbat berrikuntza egin beharko dira. Has-

teko, Deba ibaiaren gaineko pasabidea egokitu beharko dute irisgarritasun-araudia betetzeko. Bestalde, N-634 errepidearen eta Urazandi auzoaren arteko maila ere gainditu beharko dute, igogailu publiko batek, eskailerek eta arrapala batek osatuko duten gun bertikal batekin, gainera, gunehori Pilarreko partzelarekin lotuko dute. Errepidearen gainetik, orain dagoen moduan pasabidea ere egingo dute, baina Mendarorako noranzkoan dagoen autobus geltokia mantenduz.

Hori garatzeko zubiaren desnibela jaitea aurreikusi dute eta irisgarritasuna ezezik zubiaren itxura ere aldatuko dute, oraingo hainbat zati kenduko baitituzte.

Udalaren esanetan 2023 urtearen hasieran obrak martxan jarriko dituzte eta lan hauen harira inguruko bizilagunekin bilerak egiten jarraituko du, proiektua idazteko lanen berri emateko.

Alkateak "5.501 sinatzaileei errespetua galdu diela" uste du 24/7 Plataformak


24/7 Plataformak Elgoibarko anbulatorioa asteko zazpi egunetan eta 24 orduz zapaltzea eskatuz 5.501 herritarren sinadurak bildu zituen, eta horiek guztiak Udalaren esku uzteaz gain, bilera eskatu zieten alderdi politikoei, aurrera begirako pausoak zehazteko. Ane Beitia alkatearen erantzuna jaso dute plataformakoek, esanez, dagoeneko harremanetan jarri dela Osakidetzarekin 24/7koen gomendioak eta bildutako sinadurak helarazteko, beraz, bete duela osoko bilkuran hartutako konpromisoa.

Harriduraz jaso dute alkatearen erantzuna 24/7 Plataforman: "5.501 sinatzaileei errespetua galdu diela uste dugu. Ane Beitia bere kabuz erabaki du Osakidetzarekin harremanetan nola jarri, Elgoibarko herritar horien guztien ahotsa izan beharrean". Eta are larriagoa iruditu zaie egiteko modua. "Elgoibarko herritarrei ezer jakinarazi ez izanak, pentsarazi digu gai honek traba egiten diola eta gainetik kendu nahi izan duela lehenbailehen eta edozein modutan". Beren ustez, osasuna eta ongizatea bezalako gaiak jokoan daudenean, "ezin da arinki hartu". Bestalde, gogorarazi nahi izan dute onartutako mozioan ez zela aipatzen zer egin bildutako sinadurekin. Gainera, alkateak bere erantzunean zehazten duenez, Osakidetzari eskatu dio Elgoibarko anbulatorioan pandemia aurretik zegoen ordutegia berreskuratzeko, hau da, 20:00ak arte, baina hori ez da 24/7 plataformaren eskaera: "Guk 24 orduz zabaltea eskatzen dugu, asteko zazpi egunetan".

Hala ere, Plataformatik elgoibartarrei adierazi nahi diete ez dutela etsiko eta lanean jarraituko dutela "gure udalherriko herritar gehienek borondatea errespetatu dadin". Horretarako, erakunde publiko guztietara joko dute, "Elgoibarko anbulatorioarekin zer pentsatzen eta nahi duten zuzenean helarazteko".

Herriko espaloiak makinarekin garbitzen ari dira

Elgoibarko Udala eta Debabarreneko Mankomunitatea herriko hainbat espaloia garbitzen ari dira makina bidez, ohiko kale-garbitzeta zerbitzuarekin kendu ezin diren hondakinak garbitzeko. Hilabetez jardungo dute lanean Bernardo Ezenarro, Pedro Migel Urruzuno eta Trenbide kaleetan, Ermuaranbiden, Uparitzagan, Ikastolako igoeran... Garbitzeta urtean barrena beste eremu batzuetan ere egingo dute eta irailerako aurreikusi dute hurrengo. 2021 amaieran, herriko hainbat espaloitan ez labaintzeko tratamenduak egin zituen Udalak eta kale horietan ez da garbitzeta zerbitzu osagarri hau egingo.



▶ INA SOPO

IDAZLEA

Urteak egin ditu Elgoibartik kanpora Ina Sopok (Elgoibar, 1963), baina bizitzak bere jaioterrira ekarri du berriz. 20 bat urterekin joan zen Extremadura aldera, eta han bizi izan da oraintsu arte. Hango bizimodua albora utzita, etxerako bidea hartu zuen orain dela lau bat urte, eta hemen dauka bizitokia orain. Lasai bizi da, eta lasaitasun horrek bere zaletasunak praktikan jartzeko aukera eman dio. Musika gustatzen zaio, historia eta arkeologia ere bai, baina bereziki, irakurtzea eta idaztea atsegin ditu, eta aspaldi hasitako proiektu bati tiraka, bere lehenengo eleberria idatzi du: 'Cerdos, lon y el infierno de Patxi'. Martxoaren 3an aurkeztuko du liburua, Aita Agirre kulturaguneko areto nagusian.

- AINHOA ANDONEGI -



“Ezagutzen nautenek esan didate liburuan ikusten nautela”

♦ **Musikak Extremadura aldera eraman zintuen, eta orain, etxean, Elgoibarren, liburu bat idatzi duzu.**

San Roke bailarako baserri batean jaioa naiz, baina 1982an Elgoibartik joan nintzen. Musika asko gustatzen zait, eta gaztetan Espainia guztian zehar ibiltzen nintzen, musika taldeen kontzertuetan. Sevillako kontzertu batean nire emaztea izango zena ezagutu nuen, eta Extremaduran bizi izan naiz, 35 urtez. Nekazal etxe bat ireki genuen, eta hura kudeatzea izan da nire bizimodua, orain dela lau urtera arte. Hainbat arrazoiengatik, hura utzi behar izan nuen, eta jaioterrira, etxera, itzultzea erabaki nuen. Aitortzen dut hartu dudana era-

bakirik onena izan dela Elgoibarrera itzultzea. Gustura nago hemen, izugarri gustatzen zait hau, eta, gainera, nire zaletasunak praktikan jartzeko aukera daukat orain. Askoz lasaiago bizi naiz. Ostalaritza oso lanbide gogorra da, denbora asko kentzen du, eta ez du apenas denbora librerik uzten. Kultura gustatzen zait, bere alor guztietan, eta hona itzultzean nire zaletasunei kolpe egin behar niela erabaki nuen: konfinamenduan unibertsitaterako sarbidea egiteko prestatu nintzen, eta orain historia ikasten hasi naiz EHUan. Arkeologia ere nire pasioetako bat da, eta Aranzadi elkartearekin hainbat indusketa egin izan ditut Karakate inguruan... Eta, orain, nire

lehenengo eleberria idatzi dut. Ate asko daukat zabalik eta ezin diet zaletasun guztiei nahi nukeen beste denbora eskaini, baina pozik nago.

♦ **'Cerdos, lon y el infierno de Patxi'. Nola ekin zenion liburua idazteari?**

Proiektu hau aspaldi hasi nuen. Zinemagintzan diharduen jendea ezagutzen dut, eta lagun batek esan zidan film baterako gidoi bat idazteko, eta horrela hasi nuen. Baina proiektu hark ez zuen aurrera egin, eta laga egin behar izan nuen. Konfinamendua iritsi zenean, asko irakurri nuen, eta une batean pentsatu nuen irakurtzeari laga, eta zerbait idazteko une egokia zela. Eleberria idazteari ekin nion orain dela utebete inguru, eta

dagoeneko eskuartean daukat. Moldaketak egin behar izan dizkiot filmeko gidoia izan behar zuen testuari, pertsonaia berriak asmatu behar izan ditut eta testuingurua ere desberdina da.

♦ **Liburuaren izenburuak atentzioa ematen du. Zertan datza?**

Jende askok esan dit bai, izenburua irakurrita interesa pizten duela, eta hein batean hori bilatu dut izenburuarekin. Nobela beltza da. 80ko hamarkadan girtuta dago liburua, Euskal Herrian, garai hartako tentsio eta zailtasun giroan. 82. urtean jarri diot hasiera, hain zuzen ere, nire Euskal Herriko etapa hura bukatu zen urtean. Beste edozein data ere izan zitezkeen, baina data hori inportantea da niretzat, eta keinua egin nahi izan diot. Benetako gertaeretan dauka oinarria liburua, baina ez da autobiografia bat. Bi istorio daude, Ionen istorioa batetik, eta Patxirena, bestetik. Ion kazetaria da, euskalduna eta aspaldi ez du ganorazko ezer idatzi. Argitaletxeko arduradunak azken aukera emango dio: ganorazko zerbait idatzi ezean, kontratua etengo dio. Orduan, Patxiren istorioa idatziko du. Patxik bizimodu bitxia dauka: taberna batean atentatu bat gertatu den unean, bera komunean dago, eta hori benetan gertatutakoa da. Hortik aurrerako guztia, irakurleak deskubritzeko lagako dugu.

♦ **Zelako kritikak jaso dituzu?**

Ni oso pozik geratu naiz liburuarekin, eta egia esan behar badut, kritika oso onak jasotzen ari naiz. Irakurri duten askok esan didate benetan gustatu zaiela, eta batzuk bi eta hiru aldiz irakurri dutela ere esan didate. Oso dinamikoa da, irakurtzeko erraza eta entretenigarria. Ez da liburu astuna, ez da nobela politikoa, nahiz eta politikak baduen bere garrantzia, baina ez da eleberraren oinarria. Ez da *Patria* edo moduko istorioa. Irakurri nuen *Patria*, baina ez dauka honekin zerikusirik. Telebistean ere parte hartu nuen. Bederatzi figurante berezi zeuden, eta horietako bat izan nintzen ni. Protagonistaren txirridulari koadrillako kideetako bat izan nintzen. Elgoibarren grabatu genituen

pasarte asko, eta izugarri gozatu nuen. Baina nire liburuak ez dauka horrekin zerikusirik. Gehiago da eleberrizko poliziala. Hilketak daude, drogak... nobela beltza da. Pena bat daukat: Euskal Herriko lehiaketa batera aurkeztu nahi izan nuen, baina ez dagoenez Euskal Herriko argitaletxe batekin argitaratuta, ezin izan nuen.

“Bigarren lana nahiko aurreratuta daukat eta espero dut urte amaierarako kaleratzea”

♦ **Autoedizioaren bidez argitaratu duzu liburua. Nola egiten da hori?**

Argitaletxe bakoitzak bere irizpideak ditu. Batzuk edozer publikatzen dute, eta beste batzuk zorrotzagoak dira. Nik Circolo Rojo aukeratu nuen, eta nire ustez une honetan autoediziorako argitaletxeen artean onena da. Baina horrek ez du esan nahi nire bigarren nobela berekin argitaratuko dudarik! Hori oraindik erabakitze dago. Gustura geratu naiz argitaletxearekin izan dudana hartu-emanarekin, dena dela. Liburuaren zirriborroa bidali nien, eta berehala esan zidaten gustatu zitzaiela eta baietz, argitaratuko zidatela. Istorioa bera, elkarrizketak eta idazkera gustatu zitzaizkien, eta oso ondo egituratuta zegoela esan zidaten. 200 liburu atera ditut, dena neuk ordainduta. Idazle izatek bizitza gaur egun ezinezkoa da, baina ez dut helburu horrekin idatzi liburu hau.

♦ **Nondik datorkizu idazteko zaletasuna?**

Betidanik gustatu izan zait kultura, eta asko irakurri dut nire bizitzan. Arkeologia izugarri gustatzen zait, eta arkeologiari buruzko hainbat artikulu idazten hasi nintzen. Orain eleberria idatzi dut, eta bigarrena ere idazten ari naiz. Idazten ikastea ez da sekula amaitzen. Idaz-

teko arauak eta hiztegia etengabe beritzen ditu Real Academia de la Españolak, eta ezinezkoa da berrikuntza horien guztien jakitun izatea, baina adi egoten naiz. Gustuko dut idaztea eta edozein une da ona idazteko. Normalean, idazleok gure esperientzietan oinarritzen gara idazteko. Entzuten duguna, bizi duguna eta gertatzen zaiguna kontuan hartuta inspiratzen gara gehienok. Esango nuke, idazten dugun guztiok idazten dugun horretan nola edo hala ikusten dugula gure burua, eta ez badugu ikusten, hor egotea gustatuko litzaiagukeela. Nire liburua irakurri eta ni ezagutzen nautenek esan didate ikusten nautela liburu horretan, eta horrek ere poza eman dit. Oso zaila da identifikatuta sentitzen ez garen zerbait idaztea, sentimendurik gabe idaztea ezinezkoa da. Idatzi daiteke fikziozko eleberrizko bat ere, baina normalean, denok idazten dugu dakigunari buruz. Liburuak idazteko dokumentazio lan handia egin behar da, eta norberari gustatzen zaion horri buruzko informazioa bilatzea errazagoa da. Liburuak irakurtzeko ere onena norberari gustatzen zaionari buruz irakurtzea da. Nik idazle klasikoak asko irakurri ditut: Plinio, Herodoto... Greziako historia asko gustatzen zait, arkeologiari buruz ere irakurri dute, eta eleberrietan, historikoak eta beltzak ditut gogokoen.

♦ **Non eskuratu daiteke liburua?**

Elgoibarren, Pitxintxun eskuratu daiteke, eta beste edozein liburu dendatan ere eskatu daiteke. Online ere plataformak guztietan dago erosteko aukera. Gehiena Amazonen saltzen dut.

♦ **Bigarren liburu bat duzu eskuartean, beraz. Lehenengoaren bigarren atala izango da ala ez dauka honekin zerikusirik?**

Ez dauka honekin zerikusirik. Momentuz, lehenengo eleberrizko hau hasi eta amaitu egin da. Bigarren lana nahiko aurreratuta daukat, eta espero dut urte amaierarako kaleratzea. Gustatuko litzaidake Eguberrietarako kalean egotea, sasoi hori liburuak saltzeko ona izaten delako.



IOSU ARRAIZ ARANBURU Debabarrena Eskualdeko Mankomunitateko presidentea

Iosu Arraiz Aranburu jeltzalea (Elgoibar, 1991) 2019ko uztailaren 26tik da Debabarreneko Mankomunitateko presidentea. Hondakinen gaikako bilketa da bere ardura nagusietako bat. Azpimarratu du, kosta egiten den arren, apurka-apurka herritarrak ari direla ohiturak aldatzen.

“Erronka nagusia da errefus kopurua gutxitzea”

Mankomunitatearen 15 milioi euroko aurrekontutik 9 milioi euro pasa bideratuko dituzue hiri-hondakinen bilketara. Zelan banatzen da herrika?

Mankomunitateak eskaintzen duen zerbitzua komuna da, ez da herrien arabera bereizten. 9 milioi euro horien barruan sartzen dira, besteak beste, inbertsioak. 2019tik 1,3 milioi euro bideratzen dira inbertsioetara, kale garbiketara, administrazioa... Hondakin bilketarekin lotuta, aurtengo inbertsioak izango dira baliabideak berritzeko, iaz moduan: kamioiak, konpostagailuak, edukiontziak...

Lurrazpiko edukiontziak erretiratzen ari zarete, ezta?

Bai, iaz ordezkatu genituen lu-

rrazpiko 52 edukiontzi lurrazalekoengatik. Egoera ikusita eta herritarrei sortzen zizkieten arazoak kontuan hartuta erabaki genuen aldatzea, gainera, mantentze-kostu altua dute. Bestalde, orain, lurrazalekoengatik aldatu ez diren lurpeko edukiontziak berritzen ari gara, egoera txarrean zeudenak eta hainbat arrazoiengatik lurrazalekoengatik aldatu ezin izan direnak. Elgoibarren hasi gara lanean eta berrituko ditugu Ermuan, Eibarren eta Mutrikun, guztira, 65 edukiontzi, urtea amaitu aurretik.

Bilketa selektiboaren datuen arabera, 2017tik (%48,88) 2018ra (%53,55) izan zen gaikako bilketan igoera nabarmenena; harrezkero,

gutxiago igo da edo bere horretan mantendu da. Zein da helburua?

Igotzen joan da, batik bat, sisteman berrikuntzak sartu izan direnean, adibidez, organikoaren bilketa, errefusarena... Gero, egonkortu egin dira datuak. Hau sirimiri bezalakoa da; jendearen ohitura aldaketetan eragitea ez da batere erraza, poliki-poliki doa bustitzen eta ohitura berriak barneratzen. Hala ere, helburua da hazten segitzea. Ari gara sistema aztertzen, bilketa hobetzeko, herritarrei erraztasunak emateko eta eragin-korrago bilakatzeko. Dena den, oro har, datuek hobera egin dute eskualdeko herri guztietan. Gaikako bilketan %55 inguruan gaude eskualde mailan.

Zein kopuru nahi duzue lortu?

2020rako ezarrita zegoen gaika %40 batzea, hori gainditu egiten dugu. 2025erako %50a dago ezarrita. Hori ere bete dugu. 2030erako dugun helburua da %70erainoko gaikako bilketa lortzea.

Zer da gehien kostatzen dena?

Ontzi arinak batzea. Sortutako hondakinen artetik ontzi kopurua zenbatekoa den kontuan hartuta, gutxi batzen dugu. Azkenean, ia dena da plastikoa. Erronka nagusia, berriz, da errefus kopurua txikitzea.

Debagoienarekin konparatuz, adibidez, ia 20 puntu beherago dago Debabarrena (Debagoieneko gaikako bilketa da %74,54). Aztertu duzue arrazoa?

Eskualde bakoitzak bere garaipena egin du hondakinen bilketan. Gipuzkoan daude batzuk guk baino gehiago biltzen dutenak eta beste batzuk gutxiago. Guk gure bidea dugu eta nahi dugu hor sakondu, herritarren, enpresen eta gizarteko beste kolektibo batzuen laguntzarekin. Nik uste dut sisteman baino, eragin behar dugula ohituretan.

Europako beste herrialde batzuekin alderatuta, baxua da hemengo gaikako bilketa; berrerabiltzeko ohitura ere ez dago horren barneratuta... Kontzientziazio falta dago, akaso?

Iaz egin genuen kanpaina hondakin gutxiago sortzeko eta berrerabiltzeko... Uste dut bogan dagoela bigarren eskuko produktuak erostea, adibidez, Internetez. Herrietan ere bigarren eskuko gero eta azoka gehiago egiten dira. Nik esango nuke, orain arte bigarren eskuko arroparik –famiatik kanpokorik– ez genuela ia nahi eta orain gero eta gehiago erabiltzen edo erosten dela. Uste dut badagoela aldaketa. Konpondu, berrerabili eta bigarren eskuok salerosi egin behar dira. Zenbat

eta gutxiago sortu orduan eta gutxiago izango dugu gaika biltzeko. Gaika biltzea azken alternatiba da.

Enpresen hondakinak ere batzen dituzue. Nahikoa birziklatzen dute?

Industrialdeetan batzen dugu egurra, papera, ontzi arinak, biohondakinak eta errefusa, hiriko hondakinekin pareka daitezkeenak. Orain, industrialdeetara bisitak egiten ari gara, gogorarazteko ezin dutela jarduera industrialarekin lotura duten hondakinak errefusera bota, adibidez, txirbilak, tailer mekanikotako olio poteak... Horiek dira euren jarduera ekonomikoan sortzen dituzten hondakinak eta bakoitzak bere tratamendua behar du. Hori ez da gure arduren barruan sartzen.

“Sortutako hondakinen artetik gehien kostatzen dena da ontzi arinak batzea”

Garbiguneetara zer bota daiteke?

Aparailu elektronikoa eta elektrikoaren hondakinak, pintura latak, olio potoak... Hau da, partikularrek etxetan sortzen dituzten hondakin arriskutsuak. Gremio txikiek ere erabil ditzakete, adibidez, margolari autonomo batek. Baina mugak daude: 250 kilo asteko, eta, obra hondakina bada –amiantorik gabekoa beti–, 500 kilo astero. Lau garbigune daude: Elgoibarren, Ermuan, Eibarren eta Mutrikun. Eibarkoa eta Elgoibarkoa dira berrienak eta handienak. Ermukoaren kokapena ez da aproposena eta tamaina aldetik ez du horrenbeste erraztasun. Hori hobetu beharra dago. Mutrikukoa, berriz, ondo dago, erdibidean.

Urruzuno itxi zen. Nora eramaten dira hara zihoazen hondakinak?

2007an itxi zen. Orain zigilatzen ari gara ingurunea, esparrua berreskuratzeko garantia guztiekin. Kapa begetala eta belarra landatuko dizkiogu azalean. Urruzunora ez dira inoiz eramaten hiri hondakinak, hondakin inerteak, baizik. Hara eramaten ziren bolumen handiko hondakinak, gaur egun, Zubietara eramaten dira, egurra Kanpanzarerra eta plastikoak Aizarnazabalera. Osterantzean, hondakinei dagokierenez, errefusa eramaten da Zubietako ingurumen zentrora, organikoaren zati bat Epeleko konpost-plantara, beste bat Zubietako bio-metanizazio plantara, ontzi arinak Legazpiko planta batera, papera eta kartoia Zornotzako Saica Natur enpresara eta beira ECOVIDRIA. Bakoitzak bere trataera du, ahalik eta gehien aprobetxatzeko.

Pandemiarekin kendu egin zen edukiontzien txip sistema. Horrek eraginen bat izan du bilketan?


Mantendu egin dira datuak. Ez dugu ikusi okerrera egin dutenik. Beraz, orain gaude aztertzen zer egin, ea merezi duen txipa ipintzerik edo frakzio jakinen batean ipintzea...

Bi urte Zaldibarren hondamendia gertatu zenetik; zelan ikusten duzue egoera?


Gure lan errotik kanpo geratzen da Zaldibar. Dakiten pertsonak edo adituek hori argitzea nahiko genuke. Guri dagokigunez, gure hondakinak bideratuta ditugu eta hondakin horietatik ahalik eta gehien aprobetxatzea da asmoa. Helburua da hondakindegietara ahalik eta gutxien botatzea.

Besterik nahi baduzu gaineratu...

Gogoraraztea birziklatu egin behar dela eta ekonomikoki eta ingurumenarentzat ezinbestekoa dela gutxiago sortzea.



Eskelak lurrera erortzen dira: "Euria eta haizea egiten duenean, eskelak lurrera erortzen dira eta familientzako oso mingarria da euren senideen eskelak modu horretan ikustea. Beste herri batzuetan badaude kristalezko leihatila batzuk eskelak jartzeko, eta horiekin arazoa konponduko litzatekeela uste dugu". Hirigintza Saileko arduradunak jakinarazi du eskurtean dutela gaia, eta aurrekontu batzuk eskatu dituztela dagoeneko. Gaineratu du, bestalde, eskelak jartzen diren eraietan batzuetako hormak jabetza pribatukoak direla, eta jabeen baimena lortzeko lanean ari direla.



Kiroldegiaren segidan dagoen espaloi zati bat oso estua da: "Kiroldegitik igogailu berrira doan espaloia oso estua da tarte batean, eta ondorioz, oinezkoen bidea oztopatu egiten da. Gurpildun aulkian edo umeen karroarekin doazen herritarrak, pareko espaloiara joan behar izaten dute, tarte horretan pasatzeko zailtasunak daukelako. Orain igogailua egin dutela, espaloi horretatik jende gehiago ibiltzen da, eta ondo legoke apur bat zabaltzea".



Pedro Migel Urruzuno kaleko lurrazpiko edukiontziak bi hilabetez plastifikatuta daude: "Dagoeneko badira bi hilabete Pedro Migel Urruzuno kaleko lurrazpiko edukiontzien obrak amaitu zituztela, baina oraindik plastifikatuta daude. Bitartean, lurrazaleko edukiontziak portal aurrean daude. Goizeko ordu txikietan etortzen dira kamioiak edukiontzi horiek husteratzen, eta kolore bakoitzari dagokion kamioia ordu batean etortzen da, gainera. Sekulako zarata eta traba eragiten dute. Bizilagunek, gainera, zaborra edukiontzian sartu beharrean, espaloian lagatzen dute askotan. Uste dut badela ordua lurrazpiko edukiontziak zabaltzeko. Aita Agirren eta Antonio Arrillagan ere gauza bera gertatzen da. Ez dakit zeren zain dauden, eta Udalean ere ez didate argitu".



Zabor edukiontzia beteta dagoenean ere isunak jarriko dituzte poltsak kanpoan lagatzeagatik?: "Noizbait gertatu izan zait zabor poltsa lurlean laga beharra, edukiontzia beteta zegoelako, eta orain jakinarazi du Mankomunitateak isunak jarriko dituztela, poltsak edukiontzi kanpoan lagatzeagatik. Hori horrela izango bada, espero dut edukiontziak erabiltzeko moduan egotea, bestela, ezer gutxi egin ahal izango dugu. Bide batez, jakin nahi nuke nola kontrolatuko duten nork utzi dituen poltsak edukiontzi kanpoan". Mankomunitatetik jakinarazi dute hondakinak egunero jasotzen direnez, errefusaren edukiontzian tokia egoten dela, poltsak barrura botatzeko. Bestalde, Mankomunitateak tarteka inspekzioak egingo dituela azaldu du, eta atestatutak udaltzainek egingo dituztela.

Kabinako telefono deiak moztuta

Telefono dei gutxi egin izan dira azken aldian kaleko telefono kabinetatik eta urte hasieratik bat bera ere ez. Asko dira sekula horrelako telefonorik erabili ez duenak eta kalean ikusi arren zertarako balio duten ez dakite txikienean. Bada, deiak egiteko konexioa urte hasieran eten zuten eta 2022an barrena kabinak kenduko dituzte. Kalean txanponak sartu behar ziren aparatuetatik deitu behar zen lehen, orain apenas dago kalean poltsikoko telefonorik hitz egiten ez duenik. Zergatik deiak ez ezik telefonoak ere kendu?

- IRATI AGIRREAZALDEGI -

Telefono kabinak, asko dira herriko txokoren batean ikusi arren, sekula erabili ez dituztenak eta beste asko non dauden edo egon ziren ere ez dakitenak. Baina garai batean ia edonon aurkitu genezakeen kabina bat edonora deitzeko beharra asetzeko. Kanpoan egotean edo etxean beste aparailurik izan ezean, sarri erabiltzen ziren kabinak. Izan ere, sakelako telefonorik ez zen existitzen garai hartan, eta deitzeko beharra, egungoa bezalakoa zen. Teknologiararen eboluzioak ahazturan utzi ditu, baina kabinak. Izan ere, Telefónicak emandako datuen arabera, 2006rako sakelako telefono gehiago zegoen biztanleak baino. Estuak eta itxiak ziren garai bateko kabinak, bat baino gehiago horrelakoren batean sartutakoan larritu ere egiten zen, espazio faltagatik. Gerora kanpoko kristal eta burnirik gabeko zutabeetan ipini zituzten telefonoak. Baina izan kabina barruan zein zutabeetan, lehen jende askok hitz egiten zuen kabinetatik eta noiz edo noiz ilarak sortzen ziren kabinen aurrean. Zain egon beharra zen askorentzat traba, deitu behar eta bere zain zeudenen aurrean hitz egin beharra besteentzat. Kabina barruan labur ziren beste aldekoari egin beharreko hitzak, kanpoan, ordea, luze. Ezer ezin gorde inguruan dena entzuten zen elkarrizketa haietan eta gainera, txanponak sartu eta sartu, zer eta berbetako momenturik onenean deia mozteko.

MEDE BAT BAINO GUTXIAGO

Momenturik onenean mozten zen deia, baina orain jadanik betirako moztu dira kabinetako dei guztiak. Deia moztu baino, seinalea da betirako eten dutena. Espainiako Gobernuak Telekomunikazio Lege Orokorrean jasotakoaren arabera



2022an barrena telefono kabinak eta telefono gidak kentzea erabaki dute. Izan ere, kabinen ardurak izan duen Telefónica enpresak ez du derrigorrezko zerbitzutzat jo. Gainera, Espainian, urte bukaerara arteko kabinen urteko mantenua 4,5 milioi eurokoa zen. Telekomunikazioen Legearen arabera, beraiek eskaintzen zuten zerbitzu unibertsalak bermatzen zuten herritar guztiak zerbitzu jakin batzuetarako sarbidea izatea, kokapen geografikoa edozein izanda ere, kalitate jakin batekin eta arrazoizko prezioan. Horretarako, mila biztanletik gorako herriek gutxienez kabina bat izan behar zuten instalatuta orain arte, eta beste bat gehiago hiru mila biztanleko.

Euskaltelek 90. hamarkada amaieran EAEn kabina batzuk ipini zituen, baina ez zuten asko iraun. Beraz argi dago beste konpainiarena dela kabinen bide nagusia.

Telefónicara deia egin eta kabinen ezarpenari buruzko makina bat datu eman dzkigute: 1928an ipini zuten Madrilen lehenengo telefono kabina eta Madril eta Bartzelonaren osteko hiria Bilbo izan zen, 1963an. Kabina horietan fitxa bat kontsumitzen zen elkarrizketako hiru minuturo eta guztira 300 ipini zituzten. 1966an Gasteizko lehenak jarri zituzten, baina herri barruko deiak baino ezin zitezkeen egin, 1970ean herriarteko lehena ipini zuten arte. Donostian 1965eko uztailean ipini zituzten lehenak, probarako.

Kabinei mende bateko zorion agurra telefonoz egin aurretik, ordea, deia etetea izan da erabakia. Ipini, mordo ipini dituzte urteetan barrena, baina erabilerak behera egin ahala kendu ere egin dituzte pixkanaka. 2021. urte bukaeran 14.284 kabina zeuden Espainian; horietatik 532 Euskal Autonomia Erkidegoan eta 219 Gipuzkoan; Elgoibarren lau

Telefónicako Espainiako datuen arabera orain dela hiru urteko deien erdia egin zen iazko urte amaierara bitartean: astean bat

eta bat bera ere ez Mendaron. Horiek guztiak urteak aurrera egin ahala kentzea da asmoa, nahiz eta oraindik ez duten aurreikusi kentzeko plangintza, legeak aurrera egiteko zain baitaude.

DEI BAKARRA ASTEKO

Legea da kabinak kentzeko arrazoia eta aurrez ere Europako Komisioak horretarako gomendioa egin zuen, oso zaharrituta zeudelako. Orain arte denak kendu ez badituzte ere izan da apurtu dituzten kabinarik eta hauetan lapurretan egin duenik ere, eta horrelakoetan konpondu arte zerbitzutik kanpora egon izan dira kabinak, herri batzuetan telefono zerbitzu publikorik gabe geratzeraino.

Legea edo kabinen egoera txarra dira kabinak desmuntatzeko arrazoi batzuk, baina hauen erabilera gero eta ahulagoa izateak ere badu eragina, jakina. Telefónicako datuei

erreparatuta ikus daiteke iazko urte bukaeran kabina guztietako deiak kontuan hartuta, 0,17 dei egiten zirela egunean, hau da, orain dela hiru urteko erdia, edo beste era batera esanda, astean dei bakarra.

Sakelako telefonoak modan jartzen hasi zirenean, baina, ilarak ikus zitezkeen maiz Merkatu Plazako sarrerako kabinetan. Izan ere, orduan lokutoriorik ez eta Elgoibartik atzerrira deitzeko baliatzen zituzten kabinak, handik deitzea merkeagoa zelako. Bost euroren truke txartel bat erosi eta Boliviako senideekin ordu erdiz hitz egiten jarduten zuenik bazen, gainontzekoek entzuten bazieten ere.

Poltsikoko telefonoek eta teknologia berriek eragin nabarmena dute beharakadan eta Merkatuen eta Lehiaren Batzorde Nazionalaren honako datua esanguratsua da: Espainiar Estatuko biztanleriaren %88k ez du sekula telefono kabina batetik deirik egin, 30 urtetik beherako biztanleek batik bat.

Ezagutu dituztenek deiak agian ez, baina bestelako hainbat kontu egin dituzte telefono kabinetan: San Bartolome jailetako sokamuturra kabina gainerik ikusi izan duen herritarrik bada eta baita zezena gerturatu eta honen babesean kabinara sartuta kristaletik ikusi duenik ere. Jolaserako ere baliatzen zuten txikienek, adibidez, harrapaketan hasi eta heldu ez zitzaizten kabinan sartzen ziren umeak, batzuk bete arte gainera.

Bestelako tramankuluekin ohitu dira hauek, kultura digitalera, hain zuzen ere, eta Ministroen Kontseiluak hartutako erabakia beren aldekoa izan daiteke beharbada. Izan ere, errege-dekretu bat onartu du autonomia-erkidegoen esku jartzeko 360 milioi euro, digitalizatzeko. Kopuru hori bideratuko da: interes-guneak konektatzeko neurrietara, biztanleen sektorerik ahulenei konektibitate-bonuak eskaintzera (urtean gehienez 240 euro) eta 2020a baino lehen egindako eraikinen telekomunikazio-azpiegiturak egokitzera.

Orain ezer gutxi dira telefono kabinak eta aurtengo urtean barrena ez da bat bera ere geratuko. Ume batek baino gehiagok galdetu die noizbait gurosoei Merkatu Plazara joaterakoan zertarako erabiltzen ziren horman itsatsitako tramankulu haiek ere.

Baina gaur egun askotan ez gara konturatzen zenbat begiratzen diogun sakelako telefonoari egunean eta kabinak sekula erabili ez dituzten horiek, begiratu al diete noizbait kabinei? Eta erabili dutenek kabinetako deiekin gogoratu haiek utzitako hutsuneei begiratuko ote diete urte amaieran, nostalgiaz bada ere?

Telefono deiak eten dira jadanik, kabinakoak,





2011

noski, baina telefono hotsak entzuten jarraituko dira kaleetan, kabinetan zintzilik egoten ziren telefono haietakoetatik baino

poltsikoko telefono txikietatik, hitz egiten eta haietan deiak jasotzen jarraitzen baitugu.

Altzolako zentralita, kaleko kabina ipini arte

Kabinak bai, baina garai batean telefono zentralitak ere baziren. Altzolan, esaterako, Garcia-Mortalenatarren etxean zegoen, eta Maria Mortalena zenak zuen haren ardua. 1963tik 12 urte inguru eman zituen zentralitarekin harik eta automatizatu eta etxean kabina moduko bat ipini zuten arte. Haren zaintza ere bere kargu egon zen, 1975. urte inguruan kalean telefonoa ipini zuten arte. Askok ez dakite nola funtzionatzen zuten zentralitek, baina Maria Angeles Garcia Mortalena gogoan ditu hango kontuak. Amak ardua izan arren, bera ere egon izan zen noizbait telefonoak noiz joko zain.

Balneario edo beste hotel edo hostaletako jendeakin telefonoz hitz egiteko beren etxeko zentralitatik pasatzen ziren deiak eta norbaitek beste toki batera deitu nahi bazuen beren etxera joan behar izaten zuten. Bestalde, baziren etxe hartara deitzen zutenak eta eskatzen zutenak norbaiti enkargua emateko, handik denbora tarte batera deituko zutela eta han egon zitezten.

Beren etxetik pasatzen ziren deiak, baina Mariak Azpeitira deitu behar izaten zuten konferentzia eskatuz eta han demora (ordu tarte bat beranduago deitzeko) ematen zioten. "Ez dut gogoan zenbat denbora pasatzen zuten jendeak telefonoan, baina ez zen telefono zenbakia markatu eta deia

berehala egiten, atzerapena batzutan lau ordukoa izaten zen. 14:00etan gure etxera etorri eta 18:00etan bueltatzen ziren hitz egiteko", dio Maria Angelesek.

Hainbat urtez beren etxetik bideratzen ziren deiak, harik eta Balneariotik bertatik deitzeko modu automatikoa ipini zuten arte. Maria Angelesek 18 urteren bueltan balnearioan egin zuen lan ahizparekin, "amari deitzen genion, berak komunikazioa jartzen zuen eta guk deiak logeletara pasatzen genituen". Zortzi urte zituztenetik kabilak eta eskulekuak ondo maneiatzen zituzten, batzuk sartu eta besteei buelta eman behar baitzitzaizen telefono deiak egiteko.

Prezioak ez ditu gogoan Maria Angelesek, bai, ordea, automatikoa jarri zutenean minutu bakarra hitz egiteko hiru ordaindu behar zirela, eta hirutik pasaz gero, sei. "Jendea denbora mugara iritsi arte egoten zen hitz egiten dirua aprobetxatzeko. Erloju moduko bat geneukan eta hiru minutura gerturatzen ari zirenean abisatu egiten genien".

Bestelako telefonoak ipini zituztenean markatu orduko nahi zutenarekin hitz egiteak hasieran harritu egin zituela esan du: "lehen moldatzen ginen hainbeste telefono eta traste gabe! GPSrik gabe ere toki pila batera iritsi izan gara, baina orain ezin dugu aldean telefonorik ez dugula ibili. Lehen etxean denezat eta orain poltsikoan niretzat".

Erraldoiek, dultzaineroek eta Mautitxa txarangaren kalejirak girotuko dute inauteri-zapatua

Inauteriek kolorea ipiniko diete Elgoibarri ere asteburuan. Gaur, barikua, Elgoibar ikastolako ikasleek euskal inauteria irudikatuko dute kaleetan. Haur Hezkuntza-koak Maalan arituko dira 14:45etik 15:15era bitartean eta Lehen Hezkuntza-koak Kalegoen plazan, 15:15etik 16:30era artean. Euria egiten badu, ikastetxean egingo dute jaialdia.

Gauean, berriz, Sinuöseren inauterietako emanaldiak hartuko Kultur Etxeko sotoa. Iban Urizar eta Patxi Zabaletak 26. urtez jarraian eskainiko dute inauterietako saioa, eta ohi duten moduan, sorpresak iragarri dituzte. *Sinusoide Irratia* piztuko dute, 23:00etan.

Bihar, berriz, buruhandiak irtengo dira kalera, dultzaineroen laguntza, eta 19:00etan Mautitxa txarangaren kalejira izango da. Mendaron ere bihar izango da inauterietako egun nagusia: dantza kalejira egingo dute herrian barrena, 12:30ean Herriko Plazatik abiatuta, eta 18:00etan, berriz, disko festa eta playbacka egingo dituzte Goñati pilotalekuan, Arno Guraso Elkarteak antolatuta.

Ludotekak eta gaztelekuak

Inauteriak direla-eta Elgoibar eta Mendaroko ludoteka eta gazteleketan programazio berezia izango da. Elgoibarko ludotekan otsailaren 23tik 25era maskarak egiteko eskulan tailerlean, inauterietako aurpegi margoketan eta sukaldaritzan aritu dira. Gaztelekuak, berriz, otsailaren 27an, igandean, ospatuko dituzte inauteriak, eta bertaratzen direnek karaokean abesteko aukera izango dute.

Mendaroko ludotekan inauterietako apaingarriak egingo dituzte, otsailaren 28an. Gaztelekuari dagokionez, bihar, otsailak 26, mo-zorro argazki-lehiaketa eta merienda izango dira. Martxoaren 1ean, berriz, mo-zorro desfilea, globoflexia eta jolasak.



Kantu kolore taldearen saioa izango da inauteri-martitzenean



Peru krokodiloa ikuskizuna eskainiko du Kantu kolore taldeak martitzenean. Umeek antzerki, kantu eta dantzaz gozatzeko aukera izango dute, baita elkartasuna, adiskidetasuna edo errespetua bezalako baloreak lantzeko ere. Bi emanaldi egingo dituzte: 16:30ean eta 18:30ean. Sarrerak salgai daude internet bitartez herrikoantzokia.eus webgunean edo zapatuan 18:15etik 20:45era bitartean, Herriko Antzokian.

Salgai daude martxoaren 18an Mendaron egingo duten bertso saiorako sarrerak

Martxoaren 18an *Zerua Motxailen Aterpe* bertso saioa egingo dute Mendaroko Sanaustin aretoan 22:00etan. Maialen Lujanbio, Andoni Egaña, Alaia Martin eta Eli Pagola arituko dira bertsoan Maialen Olazabal gai-jartzailearen esanetan. Sarrerak jadanik salgai ipini dituzte Morroskillo dendan eta Aitzbeltz tabernan zazpi euroren truke.



▶ FRAN URIAS

GITARRA-JOLEA ETA ABESLARIA

Fran Urias (Etxarri Aranatz, 1985) Elgoibar Ikastolan irakasle da. Bere musikari ibilbideak egin du, ordea, ezagunago. 15 urtez Hesian taldean aritu ostean, proiektu berri batekin etorriko da gaur iluntzean Elgoibarrera: Zelanda. Talde honen inguruko nondik norakoak azaldu ditu kontzertura gonbidatuz.

- IRATI AGIRREAZALDEGI -



“Hesianekiko katea eten nahi dugu Zelandarekin”

◆ **Elgoibarren, batzuentzat lankide eta irakasle, beste zenbaitentzat Hesian taldeko musikari, gaur, ordea, Zelanda taldearekin etorriko zara. Nola sortu zen Zelanda?**

Proiektu berri bat da, hiru lagunek osatua (Ane eta Iñaki Bastida eta hirurok), zuzenean boskotea izango garen arren. Horietatik hiru Hesian taldean arituak gara, beraz, badu nolabaiteko lotura Hesianekin. Hesian amaitu baino lehen kantu batzuk eginak neuzkan eta argi neukan horiekin zerbait egin behar nuela etorkizunean. Hesianeko kide batzuei esan nien eta bat egin zuten nirekin. Entseatzan hasi ginenean, pandemia etorri zen eta etxetik hasi nintzen lanean modu modernoago batean, ordenagailuko programekin. Konfinamendu garaian etxean ordu asko pasa genituen, kantuak sortu nituen eta horrek prozesua azkartu zuen. Lan bat sortuta, erakusteko gogoia pizten da eta aldi berean grabatzekoa eta kantuari beste itxura bat ematekoa.

◆ **Zein estiloko musika egiten du Zelandak?**

Oinarrian rocka da, baina pop mundura ere hurbiltzen da melodia aldetik eta ukitu moderno batzuk ere baditu, ukitu elektronikoa batzuk. Teklatuak eramango ditugu zuzenekora, sintetizadoreak. Hesian haizezko musika tresnek estilo batera bideratzen zuten bezala, Zelandak beste bide bat hartu du teklaturekin.

◆ **Hesianen jarduna amaitu arren, zuri ez zitzazun musikan jarraitzeko gogoia eten, ezta?**

Idazteko nahi edo gogoia izanez gero, idazten dugu eta horrek ez du esan nahi derrigorrez erakutsi behar dugunik, baina niri etorri zitzaidan sortutakoa grabatzeko eta jotzeko txispa hori. Atsedean hartzeko apenas dudak gogorik, baina ez nintzen gai uzteko, beharra nuen musikarekin jarraitzeko.

◆ **Hesian taldeko hiru kide jardungo zarete taula gainean eta jendeak izan dezake aurreiritzia soinu bera ekarriko duzuela. Baina ba al dago ezberdintasunik taldeen artean?**

Gure taldean ahots bakarra dago, nireak, eta Hesianen bi emakume eta gizonezkoarena zeuden. Zuriñe Hidalgo ezaguna zen telebistatik eta bera zen taldeko irudia. Bestalde, Zelandan ez ditugu haizezko instrumentuak sartu. Hesianen estilo zehatz batean lerrotatuta geunden eta horrekin apurto nahi izan dugu. Atera genuen lehenengo abestiarekin (Amarena) jendearengandik jaso nahi genuen erreakzioa lortu genuen: “Zer da hau? Ez nuen espero hau egingo zenutenik”. Baina guk Hesianekiko katea eten nahi genuen Zelandarekin, ideia berriak ditugu eta gure musika beste leku batera eramatea lortu dugu.

◆ **Hitzetan izan da aldaketarik?**

Aldaketa kontzienterik, ez. Musikan beste bide batetik jotzea erabaki genuen, baina hitzekin ez da hori gertatu. Hitzak oso barrutik irteten dira eta norberari gorputzak eskatzen diguna, sentitzen duguna idazten dugu. Hitzak antzeko ildotik doaz, baina gu ez gara orain dela urte batzuk ginen bezalakoak eta tartean bizipen gehiago izan ditugu.


◆ **Zer eskainiko duzue zuzeneko kontzertuan?**

Ez dugu rol zehatz batetik jardungo. Bilutzeko gara gure bihotza eszenatokian utziz. Ez gara joango tramite bat betetzera, zorritarrez musikan hori gertatzen den arren, gu, daukaguna ematera joango gara. Gure helburua da ondo pasatzea, emandakoarekin gustura amaitzea. Lau abesti publikatu ditugu eta horiekin batera beste horrenbeste sortu, kaleratu ez ditugun arren, zuzenekoetan joko ditugunak, kontzertuei nolabaiteko eskusibotasuna emanez, eta emanaldiko zerrenda bertsio batzuekin osatuko dugu.

11.300 ikusle izan ditu Herriko Antzokiak 2021ean, aurreko urtean baino 3.000 gehiago

Elgoibarko Herriko Antzokitik 11.312 ikusle pasatu ziren 2021ean, aurreko urtean baino 3.000 gehiago. 2020an 8.634 ikusle izan zituen guztira eta 2019. urtean, 16.715. Datu hauetan ez dira sartzen urtean zehar elkarteek zein ikastetxeek antolatzen dituzten jaialdietako ikusleak. Horrez gain, kontuan izan behar da pandemia garaiko datuak direla, eta kultur jarduerak gorabehera handiak izan dituztela epealdi horretan. Hori horrela izanik, Udaleko agintariek uste dute Elgoibarko herriak "konpromisoa" erakutsi duela kultur ekitaldiekiko.

Zinea, ikuskizun eszenikoak eta diferituak hartu dituzte kontuan datu hauek ematerako orduan. Zinemari dagokionez, *Maixela* filma izan da ikusiena



391 ikuslerekin, eta umeen filmetan *Los Crodos: una nueva era*, 180 ikuslerekin. Antzerkiari dagokionez, berriz, *Losers* antzezlanak 346 lagun bildu

zituen. Azkenik, Udal Musika Bandak bi emanaldi eskaini zituen 2021ean, eta 426 lagun joan ziren kontzertu horietara.

Uluka Batukak bi emanaldi egingo ditu martxoan

Martxoaren 8a Emakumeen Nazioarteko Eguna izanik, Uluka Batuka emakumeen batukada taldeak bi saio eskainiko ditu egun horren harira: martxoaren 5ean, 13:30ean Maalan eta martxoaren 8an 19:30ean Kalegoen plazan. *Martxoak 8 egunero da* lelopean danbor, pandero eta bestelako hainbat tresnarekin aterako duten soinuarekin izango duten helburua izango da berdintasunean bizitzea lortu arte emakumeen eguna egunero dela gogoratzea.

Bideoklipa grabatzeko figuranteak behar ditu Muzak musika taldeak

Ruben Irigoyen elgoibartarrak (bateria), Joanes Iñurrieta soralezetarrak (gitarra eta ahotsa) eta Aitor Sagarmendi nutrikurrak (baxua) osatzen dute Muzak taldea. *Programaturik* izeneko diskoa kaleratu zuten iaz, eta Euskadi Gazteako Maketan Lehiaketako finalista ere izan ziren. Orain, beste pauso bat emango dute, eta diskoari izena ematen dion *Programaturik* abestiaren bideoklipa grabatuko dute. Martxoaren 5ean eta 6an egingo dute grabazioa Mutrikun, abandonatutako komentu zaharrean. Bideokliperako figuranteak eskatu dituzte, 30 bat lagun. Grabazioa bi egun izango den arren, figuranteak lehenengo egunerako soilik behar dituzte, 9:30etik 14:00ak arte. Bideoklipean parte hartzeko ez da ezaugarri berezirik bete behar. Eskatzen duten bakarra da grabaziora puntual azaltzea eta honako jantziak eramatea: manga motzeko kamiseta zuria, inolako marrazki edo estantaturik ez duena, eta galtza bakero luzeak. Estrak aukeratzeko ez dute *casting*-ik egingo eta lana borondatezkoa izango da. Lander Andonegik zuzenduko du bideoklipa eta Nerea Taboadak produzituko du. Interesatuek muzaktaldea@gmail.com helbidera idatzi behar dute.



Elgoibarren jokatuko dituzte Open Cup Euskadi txapelketako final guztiak, zapatuan

Kopa txapelketa moduko bat sortu du Euskadiko Eskubaloi Federazioak, Open Cup Euskadi izenpean, eta Elgoibarren jokatuko dituzte senior, jubenil edo kadete mailako sei finalak, hiru emakumezkoenak eta beste hiru gizonezkoenak. Sei final horiek egun bakarrean –otsailak 26– eta leku bakarrean –Olaizaga kiroldegia– jokatuko dituzte. Finalen maratoia 9:30ean hasiko da eta 21:00ak inguruan amaituko da. Gainera, Sanloko talde bat ere sailkatu da finalerako, kadete nesken Salento Gelati taldea, hain justu ere. Etxebarriko Kukullaga taldea izango dute aurkari elgoibartarrek, 13:00etan jokatuko duten finalean.



Garaipena Alcantarentzat

Igoera faseko lehen itzuliko azken partida jokatu zuen Alcorta Forging Group eskubaloi taldeak, aurreko asteburuan, Olaizaga kiroldegian, eta garaipen garrantzitsua lortu zuen Ereintza Besissier taldearen aurka (25-20). Hala, lau punturekin amaitu du Alcantortako gobernu faseko lehen itzulia, etxean jokatu dituen bi partidak irabazi eta kanpoan jokatuak hirurak galduta. Bigarren itzulia itxaropentsu hasiko dute, azkena lortutako garaipenari esker, eta falta zaizkien bost partidatitik hiru etxean jokatu beharko dituztelako. Aurrenekoa datorren martxoaren 5ean, Legazpiko Lau Bide Jatetxea taldearen aurka. Senior emakumezkoen Gaurve Asesores taldeak ere Olaizagan jokatu zuen bere partida. Denboraldi honetan partidarik galtzea zer den ez dakien Ohorezko Zilarrezko Mailako liderraren, Atarrabiako Gurpea Beti Onak, aurka jokatu zuten. Partida lehiatua eta parekatua jokatu zuten, baina azken bost minutuetan hobeto aritu ziren nafarrak eta 25-28 irabazi zuten.

Ohorezko mailan jokatu du datorren denboraldian C.D. Elgoibarreko infantilen taldeak

Infantil mailako 50 bat futbol talde lehiatu dira Gipuzkoako Txapelketan, sei multzotan banatuta. Multzo bakoitzeko lehen bi sailkatuek eta hirugarren sailkatu onenek lortu dute Ohorezko Infantil mailara igotzea. Elgoibarko Infantil Txiki taldeak bigarren postuan amaitu du bere multzoan. Elgoibartarrek Urola taldea izan dute aurkari nagusia, eta haien kontrako bi partidak bakarrik galdu dituzte. Gainera, partida parekatuak izan zirela eta detaile txikiengatik erabaki zirela azaldu du taldeko entrenatzaile Iker Martinezek. Mikel



Hidalgorekin batera aritu da Martinez entrenatzaile lanetan eta denboraldi hasieran erritmoa hartzea kosta zitzaizela azaldu du. "Joan zen udan taldearen ardura hartu genuenean, pandemiagatik inoiz lehiatu gabeko taldea zela gogora ekarri behar da, eta sekula hamaika hamaikaren aurka jokatu gabea, ordura arte zela erdian aritzen baitziren, zortzi jokalaririk zortziren aurka. Hortaz, euren ikuspegitik aurten hasi dira futboleko jokatzeko, horrela ikusten baitute telebistaz. Hasieran kosta egin zitzaizkien espazio berrira ohitzea, eta zelaian izan behar duten kokapena lantzeaz gainera, mugimendu berriak ikasi behar izan zituzten". Ikaste prozesu horretan zeudenean emaitzak ez zirela onak izan dio Martinezek, baina poliki-poliki aldaketok barneratu, eta emaitzetan ere igarri zen. "Partidak irabazten hasi ginen, eta hamabi urteko umeei ere ilusioa egiten die irabazteak, baina guk argi dugu heziketa dela gure zeregin nagusia, partidak irabazita gusturago aritzen direla ukatu gabe. Guraso batzuek futboleko ondo jokatzeko dutela ere esan digute eta asko pozten gaitu horrek, beldurrik gabe aritu daitezela eta futbolaz goza dezatela nahi dugulako", esan du Martinezek.

Erraketista profesionala izandako Juana Arrillaga 'Arane II.a' hil da Mexikon

Juanita Arrillaga Garate *Arane II.a* erraketista hil zen, otsailaren 18an, Mexiko Hirian, 96 urterekin. Emakumeen kirolean aitzindariak izan ziren erraketistetakoa bat izan zen *Arane II.a*, bere ahizpa Mariarekin batera. Idortorbeko *Arane* baserrian jaio ziren Juana eta Maria, 1918 eta 1925 urteetan, hurrenez hurren, eta baserriaren izena hartu zuten goitizen, pilotan jokatzeko: *Arane I.a* Mariak, eta *Arane II.a* Juanak. Neba-arrebetan zaharrena zen Maria San Pedroko elizpean hasi zen umetan pilotan jokatzen, eskuz eta palekin aritzen zen han. Geroxeago hasi zen erraketarekin jokatzen, Elgoibartik Azkoitirako bidean zegoen Kamiñeroko frontoian. "Eibartik gizon bi etortzen ziren guri erakustera eta guk ordaindu egiten genien erakustearren. Di-da batean moldatu ginen erraketekin, sei hilabetean erraketista egin ginen", gogora ekarri zuen *Arane I.ak* BARREN aldizkarian 2006an egindako elkarrizketa batean. 1935. urtean, 17 urte besterik ez zituela, Bartzelonara joan zen erraketista moduan jokatzerara. Aurreraria zen. Bost urtean jardun zuen Katalunian jokatzen, Nuevo Mundo frontoian, Principal Palacen eta beste zenbait pilotalekutan, baita gerra denboran ere. Handik Espainia guztiko frontoiak ezagutu zituen gero, harik eta 1953. urtean, jokatzeari laga zion arte. Maria Arrillaga 2015ean zendu zen, 100 urterekin, Ondarroako bere etxean.

Maria baino zazpi urte gazteagoa zen bere ahizpa Juanita, *Arane II.a*, eta ahizpa zaharrenak irekitako bideari jarraitu zion, baina atzelari modura. Bartzelonako Nuevo Mundo frontoian egin zuen debuta profesionalean. Gero, Logroñoko, Castelló de la Planako, Tenerifeko eta Mexikoko frontoietan jokatu zuen. Juanaren senideek azaldu dutenez, pilotak lehenik, eta "tio Tomasekiko maitasunak" gero, eraman zuten urrutira, Mexikora, baina hala eta guztiz ere, "Arane baserria eta euskara beti izan zituen iturburu bizitzako une eta leku bakoitzean. Asko maite izan eta maite zaitugu. Laister arte tia Juani eta argi egin denori", agurtu dute ahaideek. Hutsune handia laga duen arren, bere alaitasunaren eta baikortasunaren oroimena euren gan gordeta dute eta izango dute, "bere keinu ona, ematen zituen aholku jakintsu eta ausartak, guztien arazoetan zuen inplikazioa, eskuzabaltasun bikaina, hobetzeko eta beti ikasteko indarra eta samurtasuna".



Mayi Mujika gailendu da Lezo-Jaizkibel lasterketan



Lezo-Jaizkibel mendi-lasterketa jokatu zuten otsailaren 20an 300 saltakaririk baino gehiagok, eta Ander Iñarra eta Mayi Mujika izan ziren azkarrenak. Lezoko Gurutze Santuaren plazatik abiatu ziren antxitxikiariak eta 14,2 kilometroko ibilbide gorabeheratsua osatu ostean, irten ziren lekura itzuli ziren. Mayi Mujikak ordu bete, 18 minutu eta 21 segundoan osatu zuen ibilbidea. Mariana Gomez donostiarra sailkatu zen bigarren postuan (1:21:04) eta Lurdes Oiartzabal lezoarra hirugarrenean (1:24:51).

Antzuolako Zortzi Miliak Maite Maiorarentzat

laz pandemiagatik jokatzeke gelditu ostean, otsailaren 20an jokatu zuten Antzuolako Zortzi Miliak mendi lasterketaren bederatzigarren ekitaldia. Denboraldiko lehenengotariko lasterketa ofiziala izanda, lehiatzeko irrikaz zeuden mendi lasterkariak, eta 300 antxitxikiarik hartu zuten parte. Ibai Larrea antzuolarra izan zen azkarrena gizonetzkoetan eta Maite Maiora emakumezkoetan. Mendarorarrak ez zuten aurkaririk izan eta lasterketa guztia bakarrik egin ostean, bigarrenarekiko abantaila handiarekin ailegatu zen helmugara. Ordu bete, 19 minutu eta 26 segundoko denbora eginda, sei minutuko aldea atera zion bigarrenari



Arg.: Fotolosu


Martxotik aurrera Elgoibar Sasoian orientazio zerbitzua berriro martxan



2018an martxan jarri zuten Elgoibar Sasoian egitasmoak hiru ardatz ditu: jarduera fisikoa, ahalduntze pertsonala eta orientazio zerbitzua. Azken hori jarriko dute berriro martxan martxotik aurrera, pandemia dela-eta etenda zegoen-eta. Zerbitzu honen helburua sedentarismoari eta nagikeriari kirolaren eta jarduera fisikoaren bitartez aurre egitea dela gogora ekarri dute Elgoibar Sasoian zerbitzua sustatzaileek, Elgoibarko Udal Kirol Patronatuko eta Gizarte Ongizate Saileko arduradunek. Elgoibartar orori zuzendutako zerbitzua dela zehaztu dute. Adin guztietako herritarrek jo dezakete zerbitzu honetara bizimodu "aktibo" izateko aholku bila. Udal Kirol Patronatuko teknikari batek zerbitzu honetara hurbiltzen den pertsona orori, herrian dituen baliabideak erabilia, osasuna hobetzeko aholkuak emango dizkio; hau da, erabiltzailearen egoera zein den ezagutu eta aztertu ondoren, bizimodu aktiboagoa izateko kontseiluak. Zerbitzua doakoa da eta jarduera fisikorik egiten ez duten edo beraien ohiturak aldatzea nahi duten elgoibartarrak hurbildu daitezke bertara. Zerbitzua jasotzeko aurretiko hitzordua erabiliko da: Olaizaga kiroldegiko harreman galdetuz, telefonoz (943 744 415) edo emailaz: olaizagaharrera@hotmail.es.

Hodei Ezpeleta saritu dute Deia Kirol Sarietan

Deia egunkari bizkaitarrak lurraldeko urteko kirolari onenei aitortza egiten die Deia Kirol Sarietan. Bi kirolarik jaso dituzte sari nagusiak, Leticia Canales surfleri sopolarrak eta Jon Rham golf jokalaria barrikarrak. Horiekin batera, hainbat kiroltako kirolariek jaso dute saria, besteak beste, Pello Bilbao txirrindulariak, Kerman Lejarraga boxeolariak, Amaia Alday pilotariak edo Lucia Garcia, Iñigo Martinez eta Unai Simon futbolariak. Herri Kiroltako Karmele Gisasola mallabiarak eta Hodei Ezpeletak jaso dute. Lehenak herri kiroltako aitondaria izateagatik, eta Ezpeletak 2021eko aizkora txapelketetan eskuratutako lorpenengatik jaso du aitortza. Gipuzkoarra izan arren, Bizkaiko herri kirol federazioaren lizentziapean lehiatzen delako izan da saria jasotzeko hautagaia. Guggenheim museoan egin zuten galan banatu zituzten Deia Kirol Sariak, otsailaren 17an.



Lagun Taldeko txirrindulariek domekan hasiko dute errepideko denboraldia

Junior mailako txirrindulariek domekan, otsailaren 27an, emango diote hasiera denboraldiari, Eibarren jokatuiko duten Udaberri Sariaren 44. edizioan. Lasterketa 9:45ean hasiko da, eta Elgoibartik ere pasako da. Lehenik, 10:20ak aldera. Elgoibartik Mendarora joango dira txirrindulariak, eta Ondarru eta Markinatik igaro ostean, San Migel mendateak behera pasako dira berriro Elgoibartik (11:30ak aldera), Eibarrera bidean. Elgoibarko Lagun Taldea txirrindulari eskolako hiru txirrindulari lehiatuko dira Udaberri Sariaren: Aitor Arranz, Aritz Esnaola eta Eneko Ortega. Era berean, Elgoibarko bidegurutzak zaintzeko boluntarioak behar dituzte elkartekoek domekarako. Laguntzeko prest daudenak elt_xe@hotmail.com idatzita jarri daitezke harremanetan elkartekoekin.



LANA.....

Eskaerak

Adinekoak edo umeak zaintzeko prest nago. Titulua daukat.

☎ 631 229 408

Adinekoak edo mendekotasun egoeran dauden pertsonak zaintzeko prest nago. Gauzez ere lan egiteko prest.

☎ 631 070 934

Adinekoak zein umeak zaintzeko eta garbiketara lanak egiteko prest nago. Orduka, asteburuetan ere bai. Berehala hasteko prest.

☎ 641 425 237

Adinekoak zaintzeko prest nago, orduka edo etxeko langile moduan.

☎ 631 425 686

Adinekoak eta umeak zaintzeko edo garbiketara egiteko prest nago.

☎ 658 273 486

Adinekoak edo mendekotasuna duten pertsonak zaintzeko prest nago. Ospitalean, gauzez edo orduka. Erizain laguntzaile titulua daukat.

☎ 634 692 962

Adinekoak zaintzeko prest nago. Esperientzia handia. Erizain laguntzaile titulua daukat. ☎ 633 496 455

Haurrak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko prest nago. Esperientzia daukat.

☎ 653 407 897

Adinekoak zaintzeko prest nago. Egunez, orduka, zein gauzez. ☎ 641 322 939

Garbiketara lanak egiteko eta adinekoak zaintzeko prest nago, orduka edo etxeko langile moduan. Esperientzia handia.

☎ 643 704 118

Etxeak edo portalak garbitzeko prest nago. Elgoibartarra naiz

☎ 632 729 663

Adinekoak ospitalean edo etxean zaintzeko profesionaltasun-ziurtagiria duen laguntzailea, lanerako prest. Goizez, arratsalde, orduka... esperientzia daukat, eta elgoibartarra naiz.

☎ 685 729 790

Adinekoak zaintzeko edo garbiketara lanak egiteko prest nago. Beharrezkoak diren titulua ditut baita esperientzia ere. Euskalduna naiz. ☎ 626 490 986

GARAJEAK.....

104m²-ko garaje itxia alokatzen dut, Olasto inguruan. Autokarabana gordetzeko eta pintore edo igeltseroentzako aproposa. ☎ 661 827 292

BESTELAKOAK.....

Hilaren 29an Karakateko aparkalekuan ume baten bizikleta kaskoa topatu genuen. ☎ 639 671 419

OSPAKIZUNAK.....

Maiatzaren 28an 1971n jaiotako enbaxaria egingo dugu, Belaustegi jate-txean. Egun osoko egitaraua prestatzen ari gara. Izena emateko: *1971elgoibar@gmail.com*

  <p>ROSA Ma PINTADO</p> <p><i>Etaldean Administrazio-Gradu ikasketen arduraduna Alcala de Henareseko Unibertsitatean, eta Gipuzkoa, Bizkai eta Arabako, Errioxako eta Kantabriako ikastetxeetan. Zuzenbidean lizentziatua. Kolegiatu zenbakia: 749</i></p> <p>660 969 679 rosapf@telefonica.net</p>	<p>Nire komunitatean, atikoko etxebizitzako jabearena baino ez den terrazan jarrita dago eraikin guztirako balio duen antena. Jabe hau kexu da antena hor daukalako eta esan digu zerbitzu honen zorra ez dagoela jasota erregistro dokumentuetan. Beraz, eskatu du terrazatik kentzeko eta beste lekuren baten jartzeko.</p> <p>Antena eraikin guztirako elementua da jabe guztientzako funtzioa betetzen duelako. Elementu komuna izanik gainontzeko etxe zein lokalekin jabeakidetzan dago, beraz, ez da etxebizitza horren jabearena soilik. Elementu hori eraikinaren dokumentazioan agertzen ez bada ere, horrek ez du esan nahi komuna ez denik, alderantziz, dokumentuan modu argian pribatutzat jotzen ez bada komuna izango da. Izan ere, elementu arkitektonikoek izaera komuna dute, horien pribatutasuna argi eta garbi adierazita ez badago. Hortaz, bere etxebizitzan bertakotu gabeko edozein elementuren izaera pribatua defendatzen duenak, frogatu egin beharko du.</p> <p>Aholkua: Atikoaren jabeak onartu behar du antena kolektiboa ezinbestean bere atikoan jarri behar dela.</p>
<p style="text-align: center;">ASESORIA GO/R</p> <p style="text-align: right;">AHOLKULARI KOLABORATZAILEA San Bartolome, 2</p>	



Argazkiak eguazten eguerdia (12:00ak) baino lehen ekarri behar dira BARRENeko bulegora, barren@elgoibarkoizarra.es e-postara edo 688 634 044 bidalita.



Zorionak, **Maialen!** Asteazkenean 10 urte! Oso ondo ospatu, eta patxo handi bat, familiakoen partez.



Lau, lau lau... Zorionak, **Irati!** Eutsi poztasun horri urte askoan! Etzekoen, eta bereziki ahizpa Eireren partez. Muxu pila bat zuretzat!



Zorionak, **Hodei!** Gure etxeko futbolariak, 7 urte! Muxu handi bat etzekoen, eta bereziki, Juneren partez. Nahiaeren partez.



Zorionak, **Manex!** Dagoeneko, 2 urte! Muxu potolo bat etzekoen, eta, bereziki, Juneren partez.



Zorionak, **Duna!** Bihar, 15 urte! Muxu asko aitarien, aitiita Jose eta amama Carmenen partez.



Zorionak, **Laia,** atzo zure lehenengo urtebetetzea izan zelako. Muxu asko, familiakoen partez.

Erretratu bakarreko agurra: 4,50€.
Argazki bikoitza: 7€. Hirukoitza: 9€.
Hiru lagunetik gorako taldeak: 15€.

ELGOIBARKO IZARRAKO BAZKIDEENTZAKO PREZIOAK

Erretratu bakarreko agurra: 3,50€.
Argazki bikoitza: 6€ Hirukoitza: 8€.
Hiru lagunetik gorako taldeak: 12€.



GREMIOEN GIDA

Arozlegiak

Erreformak

Igeltseritza

Pintura

Leihoak

Iturgintza

Elektrizitatea

Gidan agertzearen onurak!

21€

hilero

21 Cren truke, hilero, zure enpresaren datuak eta irudia erakutsiko ditugu BARREN astekarian!

12

aldez urtean

BARREN astekaria da Elgoibar eta Mendaron erakusleho ikuslana.

4.885

ale astero

4.885 ale banatzen ditugu Elgoibarren eta Mendaron DOAN.

Eman bultzada euskarari eta lagundu gure proiektua finantzatzen.

943 744 112 / 688 769 657

Aita Agirre Kulturgunea, 3. 3. ezk - 20870 ELGOIBAR

barren.publi@elgoibarkoizarra.es



EXPRESS ESKAINTZAK!

HMS02I SAUBER

INTEGRAZIOKO MIKROUHIN LABEA



159 €

- 20 litroko edukiera
- Grill funtzioa
- Aurrez programatutako zortzi menu aukera
- Kontrol digitala
- Altzairu herdoilgaitza

MILARBIRE

Ubitarte, 11 - 943 741 487 - bire@milar.es

Gendeko prezioak. Produktuak agortu arte.

25 BARIKUA

19:00 Kontzertua: Zelanda eta Dientes de luna. Kultura Sailak antolatuta, Herriko Antzokian. Sarrerak salgai daude herrikoantzokia.eus webgunean.

26 ZAPATUA

9:00 Hil bukaerako nekazaritza eta abeltzaintza feria. Elgoibarko baserrietako produktuak jarriko dituzte salgai Kalebarren plazan, eta eguerditik aurrera, ganadu erakusketa egingo dute.

28 ASTELEHENA

18:00 Emakumeentzako jabeakuntza tailerra: 'Ilargia nahi badut, neuk bakarrik harrapatuko dut'. Berdintasun Sailak antolatuta, Loredi Salegik emango du. Kultur Etxeko hitzaldi gelan.

ETA, DEBABARRENEAN ZER?

'ERRE BERTSO-ANTZERKI EMANALDIA'

MARTXOAK 4, 20:30EAN,
SORALUZEN

Aner Peritz, Oihana Arana, Haizea Arana eta Leire Vargas bertsolari gazteek *Erre: Aldarri bat bertsoz* izeneko proiektua ondu dute, Edurne Azkarateren zuzendaritzapean. Dramatizatu-tako bertso-paperek osatzen dute emanaldia, eta antzerkiaz gain, helduentzako ipuin kontaketa eta poesiak bere lekua izango dute. Genero ikuspegia ardatz hartuta, aztertuko dira LGBT+ kolektiboak arauaren baitan hartzen duen lekua, gazte izatearekin lotutako zapalkuntzak, eta horiek bertsolaritzan hartzen duten forma, beste dualismo batzuekin batera.

Zinea (Herriko Antzokian)




'En un muelle de Normandia'

26 zapatua: 19:00 / 22:15
27 domeka: 19:00
28 astelehena: 21:00



'Valentina'

27 domeka: 16:30



'Libertad'

(Ongarri zinekluba)
23 eguaztena: 21:00

BARREN sare sozialetan

facebook.com/barrenaldizkaria twitter.com/bareneus instagram.com/barrenaldizkaria

Hiru sistema bataan

Neodimioa
Eraginkorra ile dunean, azal argian edo gaztara-kolorekoan

Diodoa
Eraginkorra ile finetan eta larri oso beltzarantzen

APL
Eraginkorra da mota gaztetako ileetan eta beltzaranda gabeko larriakoloren.

646 563 706

TRIPHASE

Unizaldi 9. lehoa - Bg. bilur - www.kinabizitzetako.net/koibor.com

Botika ordutegiak 09:00 - 13:00 / 16:00 - 20:00

GUARDIAK							
Egunez: 09:00-22:00		Iluntzean: 20:00-22:00		Larunbatak: 9:00-14:00 (*)			
25 BARIKUA	26 ZAPATUA	27 DOMEKA	28 ASTELEHENA	1 MARTITZENA	2 EGUAZTENA	3 EGUENA	4 BARIKUA
Egunez Garitaonandia	Egunez Arriola	Egunez Arriola	Egunez *Fernandez	Egunez Yudego	Egunez *Oruesagasti	Egunez Barrenetxea	Egunez *Ibañez
Iluntzean Garitaonandia	Iluntzean Arriola	Iluntzean Arriola	Iluntzean Barrenetxea	Iluntzean Yudego	Iluntzean Garitaonandia	Iluntzean Barrenetxea	Iluntzean Barrenetxea

* Fernandez:
Herriko enparantza, 4
Garagartza (Mendaro)
943 756 142

* Ibañez:
Rekalde, 1 (Soraluze)
943 751 638

* Oruesagasti:
Kalebarren, 9 (Soraluze)
943 751 384

Urte guztian, gabez: 22:00-09:00
Esther Mendinueta Berastegui.
Urkizu pasealekua, 6 (Eibar)
943 820 106

INAUTERIAK 2022 Elgoibar

25 BARIKUA

14:45 Ikastolak antolatuta, Euskal Inauteria. HHkoek Maalan egingo dute dantzaldia eta LHkoek, Kalegoen plazan. Euria bada, Ikastolan bertan egingo dute.

23:00 Sinuoserren inauterietako kontzertua. 'Sinusoide Irratia'. Kultur Etxeko soitoan.

26 ZAPATUA

17:30 Erraldioen kalejira, dultzaineroekin.

19:00 Mauxitxa txarangaren kalejira.

27 DOMEKA

Arratsaldez, karaokea, Gaztelekuan.

1 MARTITZENA

16:30 eta 18:30 *Kantu Kolore: Peru krokodiloa.* Herriko Antzokian.

INAUTERIAK 2022 Mendaro

26 ZAPATUA

12:30 Dantza-kalejira.

18:00 Playback jaialdia eta disko festa, Arnok antolatuta, Goñati frontoian.

28 ASTELEHENA

Arratsaldez, mozorroentzako apaingarriak, ludotekan.



Merkealdia!

%25

- ★ Neguko izaretan
- ★ Sherpa edredoietan
- ★ Manta guztietan



San Roke kalea, 20 - Elgoibar - 943 744 457 - 685 756 978 - www.textillagunak.com



1953

Aste honetako erretratu zaharra Jesus Elizburuk lagatakoa da. 1953ko argazkia da, eta Pilar ikastetxean aterata dago. Makina bat elgoibartarrek ikasi dute Pilar ikastetxean. Sasoi batean ikastetxe erlijiosoa izan zen, eta San Viator kongregazioko fraideak izan ziren irakasle. 2004an jakinarazi zuten San Viatorreko arduradunek ikastetxea itxi egingo zutela, eta 2006an itxi zuten. 2010ean Udalak hartu zuen ikastetxearen jabetza, eta eraikina eraitsi zuten. Orain, zahar etxea egiteko proiektua dute eskuartean. Ikus dezagun zeintzuk diren erretratuan ageri diren mutiko hauek:

Zutik: Anton Zabaleta, Jesus Ortueta (†), Javier Gurrutxaga, Jesus Elizburu eta Rafael Urrusolo. **Behean:** Armando Lasuen, Jose Luis Bastida, Guillermo Gorostiza (†) eta Gerardo Garate (†).



Erretratu zaharrak behar ditugu

Atal honetan argitaratzeko moduko argazkirik baldin badaukazu, bi aukera dituzu guri helarazteko:

e-posta:

barren@elgoibarkoizarra.eus

Barreneko bulegora ekarri:

Aita Agirre Kulturgunea, 3, 3. ezk.





Dulce Mateos Cruz

2022ko otsailaren 17an hil zen, 67 urte zituela.

**Lortu duzu, aske zara,
orain zure hegoek hegan egin dezakete amestu zenuen lekuraino,
harro gaude zutaz,
eskerrik asko azkeneraino borrokatzeagatik.**




Etxekoak



Amelia Gonzalez Bassen

2022ko otsailaren 20an hil zen, 93 urte zituela.
Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak,
bai eta hileta elizkizunetara agertu izana ere.

**Ekarri zenuen estiloarekin joan zara.
Betiko gogoan ama, amama, birramama.**




Etxekoak



I. URTEURRENA

Bibi Gurrutxaga San Martin

2021eko otsailaren 27an hil zen, 73 urte zituela.
Haren oroimenez I. urteurreneko meza izango da, domekan, otsailaren 27an,
11:00etan, Elgoibarko Bartolome Deunaren eliz-parrokian.
Joango zaretenoi aldez aurretik eskerrak.





V. URTEURRENA

Jesus Maria Etura Echeverria

2017ko martxoaren 1ean hil zen, 89 urte zituela.

**Denborak samina arintzen omen du,
baina zure oroitzapen goxoa ezerk ez du lausotuko.**

Sendia



XV. URTEURRENA

Ramon Untzilla Aranberri

2007ko otsailaren 27an hil zen, 42 urte zituela.

Maitasunez, beti gure bihotzetan.

Etxekoak



Une zailenetan guztiaz arduratzen gara



**TANATORIO CREMATORIO
ELGOIBAR**

Xixilion, z/g. SIGMA Industrialdea (Olasoko hilerriaren ondoan)



Hileta-zerbitzuak:

- 24 orduko hileta-zerbitzu iraunkorra
- Agur pertsonalizatuak
- Gestoria: azken borondateak, oinordetzak, pentsioak, aseguruak...
- Espainiako Estatuko eta nazioarteko lekualdaketak

T. 943 747 386

Eibar · Elgoibar · Ermua · Bilbo · Basauri · Galdakao · Barakaldo · Portugalete · Santurtzi · Leioa ·
Getxo · Sestao · Karrantza · Zalla · Muskiz · Balmaseda